Su motelezko erretratuak



Teknika bat baino gehiago eta denbora desberdinak erabilita, erretratuak egingo ditugu, eta, elkar ezagutze aldera, garrantzia emango diogu inguratzen gaituenari, materialei, objektuei, tokiei edo pertsonei.

Helburuak

- Angela Morenoren obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Sormen-prozesuetan ikerketari eta esperimentazioari eskaintzen zaion denboraren garrantzia azpimarratzea.
- Hainbat material eta teknikarekin esperimentatzea, hala nola collagearekin edo grabatuarekin, banaka eta elkarlanean.
- Erretratua ikertzea, haren inguruan hausnartzea eta genero garaikide gisa erabiltzea norberaren nortasuna eta besteena lantzeko.

Aipamenak

Grabatua: *https://www.youtube.com/watch?v=ryRNyMZlRak*

Grabatua egiteko teknika errazen tutorialak:

https://www.youtube.com/watch?v=ytjSwEpjWJQ

https://www.manualidadesinfantiles.org/como-hacer-un-grabado

Monotipia: *https://www.google.es/l?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=video&cd=&cad=rja&uact=8&ved=2ahUKEwjzrcm66cv8AhUNU6QEHRG0AgEQtwJ6BAgDEAI&url=https%3A%2F%2Fwww.youtube.com%2Fwatch%3Fv%3DdRFjvu5s33Q&usg=AOvVaw0vxW4CMi5CUGh1jey5Rp-S*

Angela Moreno: *https://deproart.wordpress.com/category/artistas/angela-moreno-artistas/*

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Angela Morenoren lana ikusi, eta galdera hauek botako ditugu: Zer material erabiltzen ditu? Zer teknika? Zenbat denbora ematen du lanak sortzen? Zer gertatuko litzateke beste denbora, teknika eta material batzuk erabiliko balitu?

2. Interesatuz gero, saio batzuk eman ditzakegu grabatuaren teknika ikertzen eta harekin esperimentatzen (ikusi aipamenak).

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Binaka egingo dugu lan, eta bikotearen erretratuak egingo ditugu aurretik prestatutako hiru lantegi-espazio hauetatik igarota:

A- Marrazki azkarrak: orri zurietan, kartoian, kartoi mehean, egunkari-paperean, oihaletan… arkatzez, koloretako argizariekin, bolalumaz, koloretako arkatzekin…

Aginduak: Erretratuak marraztean ezin zaio euskarriari begiratu. Gutxienez 3 erretratu egingo ditugu, eta euskarria zein marrazteko tresna desberdinak izango dira aldiro.

B- Collagea: Ikasleei aldez aurretik eskatuko diegu lau argazki ekar ditzaten. Jarrera desberdina izan behar dute bakoitzean: barrez, saltoka, posatzen, aspertuta… Aukeratutako irudien hainbat kopiak egingo ditugu.

Agindua: Ekarritako irudiekin eta beste paper batzuekin, bikote bakoitzak konposizio bat sortuko du. Aukera dago gainean josteko edo elementu naturalak eta beste testura batzuk txertatzeko. “Honelakoak gara eta honelakoak izango gara” baieztapenari erantzungo diogu erretratutan.

C- Grabatua. Mahai batean EBA goma, arkatza edo puntzoia, arrabola edo esponja, margo akrilikoak, ontziak, ura eta trapuak prest utziko ditugu.

Agindua: Bikotearen eskuaren edo oinaren txantiloi bat egingo dugu.

2. Seiko taldeak osatuko ditugu hiru bikote elkartuta. Bikote bakoitzak prozesua azalduko dio taldeari: zer gustatu zaigun gehien eta zer gutxien, nola sentitu garen, zer erretraturekin identifikatzen garen gehien eta zergatik.

3. Hurbileko pertsona bat ikertzen hasiko gara. Gure amona, bizilagun bat, auzoko harakina, anaia nagusia… Banaka edo talde txikitan egin daiteke. Hauek bildu behar ditugu:

- pertsona horren iraganeko irudiak
- bereizgarri dituen keinuak (marraztuta)
- asko erabiltzen dituen hitzak edo esaldiak
- haren ezaugarriekin bat egiten duten materialak edo objektu txikiak (erabiltzen dituen gauzak edo haren usaina, hitz egiteko modua, mugimenduak… gogora ekartzen dizkigutenak)

4. Erretratu bakarra egingo dugu ikerketan bildutako materialarekin eta ikasitako teknikak konbinatuta. Banaka edo binaka egin dezakegu.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Erretratu guztiekin (gureak eta hurbileko pertsonarena) erakusketa bat antolatuko dugu toki publiko batean, erretratuan agertzen den pertsona joan ahal izateko moduan. Nola kokatuko ditugun pentsatu behar dugu, haien artean nolabaiteko harremana ezartzeko.

2. Erakusketara gonbidatzeko flyer bat sortuko dugu, eta hurbileko pertsonei bidaliko.

3. Egin nahi ditugun erakusketa guztiak mapa batean kokatuko ditugu. Kopiak egin, eta eskola, kultur etxean, azokan… banatuko ditugu.

Edukien diseinua: Betisa Ojanguren

ANGELA MORENO